



# ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

22. Alea 1998ko Uztaila



## ***Errepikatzeke moduko ekintzak San Pedrotan arrakastatsuenak***

- Itarte etxearen inagurazioa eta apaizari despedida.
- Kutxako auzolandegiak.
- Sumarinismo ikastaroak igerilekuan.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

Eskoriatza

Udaletxea 714407  
 Udal Bulegoak 714532  
 Udaltzaingoa 714407  
 Euskaltegia 792168  
 Kultur-Etxea 714688  
 Gizarte-Laguntzailea 714688  
 Kiroletxea 715328  
 Liburutegia 714688  
 Luis Eceiza 714938  
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486  
 Almen 714964  
 Museo-Eskola 714688  
 Ze Barri 714077  
 Talde Antimilitarista 715028  
 Irakasle Eskola 714157  
 Osakidetza 714452  
 Telesko 714917  
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800  
 Renfe (Zumarraga) 721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 791419  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 088

**ZE BARRI?**

**Argitaratzailea:**  
**AXTROKI KULTUR ELKARTEA**

**Erredakzio kontseilua:** Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

**Kolaboratzailea:** Iñaki Agiriano, Lourdes Martinez.

**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 1.500 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”



ESKORIATZAKO  
 UDALA  
 Euskara Batzordea

Aldizkari honek Udaletxearen laguntza jasotzen du

**UNAI SALABERRIA**

**Kiroldegiaren gestioa eramango duen arduraduna.**

**1. Zein izango da zure lana kiroldegian?**

Kiroldegiko ekintzen gestioa egitea, koordinatzaile lana nolabait.

**2. Noiz hasi zara lanean?**

Uztaila hasieran.

**3. Zuri kirola egitea gustatzen al zaizu? Ze kirol?**

Bai, gustoko dut. Igeriketa eta eskia batez ere.

**4. Zer iruditzen zaizu Eskoriatzako kiroldegia?.**

Ondo dago, aukera asko eskeintzen ditu.

**5. Aktibitate berriren bat eskeintzeko asmorik ba al duzue?.**

Bai, asmo batzuk baditugu eskuartean: sokorrismoa,

buzeo ikastaroak, ume txiki-entzat igeriketa ikastaroak...

**6. Non emango duzu ordu gehiago piszinan ala ofizinan?.**

Ba piszinan, baina sokorrista lanetan ari naizelako.

**7. Nortzuk osatzen duzue enpresa hau?.**

Ni naiz enpresa, nik dut honen ardura.

**8. Zertan erabiltzen duzu aisialdia?.**

Etxea berizten, umea pasiatzen eta txakurrarekin mendi buletak egiten.

**9. Zer aldatuko zenuke alkatea bazina?.**

Diru gehiago gastatuko



nuke kultura eta kirolelan.

**10. Zer nabaritzen duzu faltan ZE BARRI? aldizkarian?.**

Laguntza behar du, bai kolaboratzaile aldetik eta baita dirulaguntza aldetik ere.

**Zer iritzi duzu plazako zinema emanaldiei buruz?  
 Zein pelikula gustatu zaizu gehien?**



**Amaia Bengoa Beloki**

- Oso ondo dago, orain gainera programazioa ere ipintzen da.  
 - Ume txikiarekin Matilda ikusi nuen eta oso polita iruditu zitzaidan.



**Aitaz Orueta.**

- Kalera irten eta tabernan egon beharrean, plazan pelikula ikustea ondo dago.  
 - Gustukuena Full monty.



**Aitor Agiriano Arrese**

- Ondo dago.  
 - Niretzat Full monty.



**Izaskun Oianguren**

- Tabernan sartuta egon beharrien denbora danean, gustoko dut kalean pelikula ikustea.  
 - Full monty ikusi dudana bakarra.



**Loli Inurrategi**

- Ume txikia dela eta aurten ez naz etorri baina ondo dago.  
 - Semeak Matilda ikustea nahi zuten, nik ez dut batere ikusi.



**Karmele Pagalday**

- Ondo dago, baina pantaila askotan estropeatzen da.  
 - Full monty.

**EIZMENDI**  
 okindegia eta gozotegia  
 Eduardo Gorosari plaza  
 Tfnoa. 943 715417

**TXALAPARTA**  
**JATETXEA**  
 Tfnoa.: 943 714327  
**ESKORIATZA**

**TXALAPARTA**  
**JATETXEA**  
 Tfnoa.: 715046



## Lourdes Martinez: AKORDEOIAREKIN MUNDUA EZAGUTZEN

*Juan José Orobengoak zuzentzen duen "Aretxabaletako Akordeoi Orkestra"ko partaideok, akordeoia ikasteaz gain mundua ezagutzeko aukera paregabea dugu: lehenbizi, Castelfidardoko (Italia) lehiaketan parte hartu eta irabazle suertatu ginen, bertan Erroma eta Pisa ikusteko aukera izan genuen; bigarren bidaia bat ere egin genuen Italiara, eta oraingoan Venezia eta Dolomita mendiak mirestu genitue; hirugarren bidaia orain dela 8 bat hilabete burutu genuen, Estrasburgoko lehiaketa ospetsu batera joan eta bigarren postua eskuratu; eta uztailean Ikaalinen (Finlandia) akordeoi jaialdi batetan izan gara. Jarraian kontatuko dizuet bidaia honen gora beherak.*

### FINLANDIAKO BIDAIA

Ekainaren 30ean, Eskoriatzako jaiak alde batera utzi eta maleta, zakua, eta akordeoiaz zamaturik ekin genion bidaiari. Egun osoa autobusean eman genuen, hori bai, batzuetan lo, besteetan geroz eta desberdinagoa zen paisaia arretaz aztertuz edota betikoak diren filme horietakoren bati burubelarri so.

"La Encina" autobusetako literetan gauean gorputzak "erlaxatu" ondoren, beste egun luze bat aurrekoaren pareko. Autobusa



utzi eta Finlandiara eramango gintuen ferrya hartu genuen. Ferrya ikaragarria zen, 3000 pertsona garraiatzeko ahalmena zuen 9 luxozko solairutan. Gure gelak 2. pisuan zeuden, ur maila baino dexente baxuago. Hala ere, oso gau lasaia pasatu genuen. Buffeta izan genuen afaltzeko, non, mota guztietako janariak aurkitu genituen.

Turkun utzi gintuen ferryak, baina gure bidaiak hiru egun pasako genituen Ikaalinen zuen helmuga. Eguerdian heldu ginen eta lehen kontzertua arratsaldean bertan eman genuen, hurrengo egunetan berriz bina kontzertu. Batzutan eguraldi kaxkarrarekin: behin aterperik gabeko lekuan, "West Side Story" abesti erdian haize bolada batek partiturak hegaz eraman zituen. Laguntzaile gisa bertara joaniko guraso batek jaso behar izan zizkigun partiturak lurretik, baina bitartean guk jotzen jaraitu genuen.

"Aguapark"batean ere izan ginen. Ez dago lana eta plazerra elkarlotzea modukorik!!!. Bertan, sauna eta hidromasajeaz gozatzeko aukera paregabea izan genuen.

Uztailaren 5ean, "Sata- Häme Accordion Festival" ari bukaera eman eta bueltako ferrya hartu genuen. Tripa hutsak buffetea bete eta mamboo!: "diskoteka" batean pasa genuen gaua.

### ESTOCOLMOKO EGONALDIA:

Egia esan, ikusitako gauza guztien artetik aipagarriena VASA museoa izan zen. Vasa dinastiako errege zen Gustavo Adolfo II. ak 1625. urtean bere boterearen seinale gisa utzi hau eginarazi zuen, baina bere lehenengo bidaian hondoratu zen. 333 urte beranduago, ur azpitik atera eta berriztapen lanak hasi ziren.



### PHIL COLLINS-EN KONTZERTUA:

Uztailaren 7an Dinamarkaruntz abiatu ginen. Arratsaldean Copenhaguerekin egin genuen topo eta "Tivoli" atrakzio parkean ere izan ginen. Benetan mundialak bertako ikuskizunak baina, gure sorpresarik haundiena ostera, Phil Collins parke hartan jazz kontzertua ematekotan zela jakitea izan zen. Beraz, iluntzerakoan guztiok pulpito inguruan, Phil Collins jauna gurtu genuen.

Biamunean, "La Sirenita" ikusi (buru eta guzti), argazki batzuk atera eta bazkalordura arte hiriko denda guztiak mihatu genituen. Eta arratsaldean hartan gure bidaiako zatirik gogorrena heldu zitzaigun: itzulera. Gaua autobusean, noski.

Uztailaren 9an iretzartu eta bidaia amaitzeaz zegoela jabetu ginen. Frantziako lurraldea zapalzen ari ginen eta ordu batzuk beranduago Iparraldea gurutzatu genuen eta azkenik, Aretxabaleta, abenturaren helmuga gehientzat (nirea 6 km aurrerago).

Orain hurrengo bidaiarekin amesten dut, izan badugulako beste proiektu bat eskuarte, Yugoslaviaraino eramango gaituena. Beraz, merezi al du urtean zehar akordeoiagatik pixkat sakrifkatzeak?

**A&B**  
aholkulariak

LAGUN-ARO ASEGURUAK

LEGEZKOA  
FISKALA  
KONTULARIA  
LABORALA

ALDETEC



TASAZIOAK  
PERITAZIOAK  
PROIEKTU ING.  
OBRA ZUZENDARITZAK  
ERREFORMAK

Gastañadui, 7  
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 ESKORIATZA  
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo  
Tel.: 908 - 77 41 33 Tel.-Fax 71 54 36 20540 ESKORIATZA



## San Pedroetako onenak!

*Oraindik gogoan ditugu lagunartean, umoretsu eta festa gogoz bizitako une haiek, duela hilabete eskas jaietan bait ginen.*

*Aurtengo jaiak, espektatiba guztiak gaudituz, arrakastatsuak izan dira, argazkiak ikustea besterik ez dago.*

- Rock kontzertua ondo egon zen baina ez zen jende askorik egon, agian sarrerak zenbaiten poltsikorako garestiegiak zirelako.
- Igande goizean oso animatuta ibili zen Gorosarri korala kalez- kale, esperientzia polita izan zen, errepikatzeko modukoa.
- Gaueko berbenan egon diren taldeak guztiak egon dira ondo baina jendea dantzatzera batez ere Eganek animatu zuen.



*Bai Nagusien tanborrada eta baita Umeena ere, aurreko urteetan baino hobeto irten dira. Umeen tanborrada gainera, karroza eta guzti atera zen, oso polita.*



*Tirri Tarra show fanfarre pasaitarrak txundituta utzi gintuen Gorosarri plazara hurbildu ginen-guztiok. Apartekoak!, jaietako perlak izan dira.*



• Bakailo txapelketan maila oso ona erakutsi zuten sukaldariek. Guztira bost bikotek hartu zuten parte eta irabazleak Letona eta Pako izan ziren.

• Herri bazkarian bapo bazkaldu zuten, menua kategorikoa ei zegoen eta beste urteetan baino jende gehiago egon zen gainera.

• Anoetara Erreala animatzera eramaten duten "Kantauri" txaranga izan genuen gure artean. Hasieran gora-beheraren bat edo beste izan zuten arren, azkenean jendea animatu eta txarangaren soinuari jarraituz kalez-kale ibili zen.

**ALDI**  
JANARI DENDA

Hidalga, 8  
Tfnoa: 943 71 45 42



**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 -bajo  
Tfnoa.: 943 71 51 20

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

**kutxa**

*fundazioa  
fundación*



## ITARTEKO ETXEAREN INAGURAZIOA

Uztailaren 10ean inaguratu zen Itarte etxea. Arratsaldeko zazpitan meza Xabier parrokoak eman zuen nahiz eta, etxearen inagurazio ekitaldirako gotzaia etorri. Gotzaiak Itarteneko eskapean etxearen bedeinkapena egin zuen. Inagurazio ekitaldi honetan Aita Guria errezatu zen eta baita Dorletako Amari abestu ere, ondoren edonork Itarteko etxe eraberritua ikusteko aukera izan zuen.

Itarten etxe hau oraintsu eraberritu da, eta aurrerantzean parrokiako zereginetarako erabiliko da katekesiak emateko, koroaren entsaiotarako, Amets Bizia, apaizaren bulego bezela... alegia. Dena den margotuta eta pinki emanda badagoen arren, oraindik etxea jantzi gabe dago, muebleak ipintzea falta da.

## XABIERRI DESPEDIDA

Dakizuenez gure artean bederatzita hilabete eskas egin ondoren, Kubara misiolari joateko deitu zuten Xabier, beraz, hil honetan bertan Eskoriatza utzi behar izan du. Baina joan aurretik, eta Itarte Etxearen inagurazio ekitaldia aprobetxatuz, Xabierri, berak ezer ez zekiela, Eskoriatzari eskeini dion arreta eta begiruneaganik eskerrak eman eta agurra eskaini zitzaion. Hitarte Etxea bedeinkatu ondoren, elizpean luntx bat egin zen,

**Itarte Etxea elizako taldeek erabiliko dute.**



**Parrokiako kideek oparitutako bizikletak ilusio handia egin zion.**

non, Kubarako bizikleta bat oparitu zitzaion Xabierri. Despedida honetan parrokiako jendea egon zen eta baita, udaletxeko ordezkariak diren Asier Sologaitza eta Manu Villar ere.

Uztailaren 19an eman zuen azken mezara jende ugari etorri zen eta bertan ere ekitaldi sinboliko bat egin zuten parrokiako kideek Xabier agurtzeko. Jadanik Kuban dugu apaiz gazte hau, hamaika ilusio eta asmo berri betetzeko asmoz, guk zortetik onena opa diogu behar horietan.

Xabierren ordezkari Txema Asenkor Irunen hamar urtez egon den abade bat dator, azken urtea barnetegian euskalduntzen eman du. Apaiz hau irailan etorriko da eta harrera ekitaldirako gotzaiaren bisita izango dugu berriz ere.

## Kutxak antolatutako auzolandegiak aurten Eskoriatzan.

Kutxa fundazioak Eskoriatzako udaletxearen laguntzarekin Auzolandegiak antolatu ditu aurten Eskoriatzan. Guztira 24 gazte egon dira, 16-19 urte bitartekoak.

Eskoriatzako udalak lo egiteko lekua, kirol instalazioak, dirulaguntza, azken eguneko afaria eta behar



zutenerako materiala zein range roverrak eskeini dizkie, horretarako Asier Sologaitza kontakto lanetan aritu da.

Uztailaren 6an etorri ziren herrira eta udaletxean harrera ekitaldia egin zitzaion gazte hauei, baina gainontzeko egunetan ere udaletxea beti egon da eurekin harremanetan. Hasiara batean bizilekua frontoiko oktagonala izango zela pentsatu bazen ere, honen egoera kaxkarra ikusita eta izan dituzten beste arazo batzuk aintzat hartuta, Gatzagan dauden Gatzainusketako txaboletara joatea erabaki zuten.

Auzolandegi hauen helburua Elgea mendi inguruan dauden tumulu eta trikuarriak garbitu eta seinalizatzea izan da. Honetaz gain udaletxeko lurretan otia eta narrak mozten ibili dira eta Aitzorrotzeko kapila margotu, garbitu eta txukun-txukun ipini dute.

Auzolandegi honek iraun duen hamabost egunotan, lana egin eta bide batez mendiaz gozatuz, gure parajeak ezagutzeko aukera izan dute eta esan dutenez oso gustora ibili dira. Gainera egin duten lanagatik ondo merezitako afari batekin egin zitzaion despedida uztailaren 17an.

### BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea  
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.



### ALTUNA

Harategia

*Etxean hazitako okela*

San Pedro, 3 • Tf. 943 714104  
HARATEGIA • Tf. 943 714464

### TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN  
ESPEZIALIZATUA**

### EROSLE

HARATEGIA,  
FRUTATEGIA eta  
BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3  
Tfnoa: 943 714546



## **Aurpegi berriak eta asmo berriak kiroldegian.**

Maringo auzo alkatea den Unai Salaberria izango da kiroldegiko arduradun berria. Besteak beste, aktibitateak koordinatuko ditu: karatea, muskulazioa, mantenimentuko gimnasia, 3.adinekoentzako eta atzeratu-entuen gimnasia... aktibitate guzti hauek monitoreek ematen dituzte eta bere lana hau guztia gestionatzea, hauei ordaintzea da.

Eusko Jaurlaritzare-kin

ere harremanak izango ditu, hala nola, ALMEN ikastola eta Luis Eceiza ikastetxe-eko hurrek ikastaroak egin ahal izateko.

Udalari kontuak aurkeztuko dizkio, kiroldegian dauden gastu eta diru sarre-ren berri emanez. Udalak subentzio bat ematen du ate-zain eta sokorristentzat, eta gastu horiek xehetasunez azalduko dizkio udalari.



### **BUZEO IKASTAROAK HASI DIRA, ANIMATU ETA PARTE HARTU!**

Kiroldegiak buzero zentro gisa funtzionatzea. Buzero tituloa lortzeko ikastaroak hasi dira jada, lehenengo bautismoa egin zuten arren beste bat egitekotan dira. Ikastaro honetan parte hartzeko kiroldegira jo beharko da, han emango dizute informazioa. Abonatuei prezio berezia egingo zaie. Teoria eta praktika Eskoriatzako kiroldegian egingo dira eta gero itsasoan ere probatuko da ikasitakoa.

## **Abiadura Handiko Trenaren inguruko ekintza eta gogoetak.**

*AHT-aren aurkako Asanbladak uztailaren 6an txosten berria aurkeztu diote, bai Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailari "Lurralde Plan Sektoriala" erretiratzeko, eta baita ere Espainiako Sustapen Ministerioari, AHT-aren "Euskal Y"aren onespenerako iragarri dituen ihardubideak geldierazteko eskatuz. Proiektu honen inguruan alegazioak aurkezteko epea uztailaren 24an amaitu zen.*

Lurralde Plan sekto-riala (LPS) aztertu ondoren AHTren Aurkako Asanbladaren ustez argi eta garbi dago inposatu nahi den AHTren proiektuak ondorio ekologiko eta sozial oso larriak eragin ezezik, Euskal Gobernuak "Euskal Y"aren premia justifikatzeko agertu izan dituen helburuak ere ez direla betetzen.

Euskal Gobernuak eta Estatu espainiarra garraio makroproiektu honen garapenari buruzko erabaki oso larriak hartzekotan dira aurki. Eusko Jaurlaritzak amaitutzat eman zuen Uztailaren 24ean "Euskal Y"aren proiektua xedatzen duen LPSren gaineko alegazio epea.

Eskoriatzako udaletxean aurkeztu dira zenbait alegazio. Alde batetik, udalak berak mankomunidearekin bildu eta gero afera honen inguruko erabakiak hartu ditu. Bestaldetik, partikular batzuk ere egin dituzte bere alegazioak.

Bestalde, Espainiako sustapen Ministerioak uda honetan AHT egitasmo honen behin-betiko onarpenerako falta diren ihardubideei hasiera emango diela iragarri du.

#### **Eskoriatzari ere eztenkada.**

AHT-aren Aurkako Asanbladak **ZE Barri?**ra ere igorri digu aurkeztu berri duen txosten horren kopia, beraz, interesa duen

orok eskura dezake txosten hori gure bulegoan.

Gainbegirada bat eman ondoren, Abiadura Handiko trenaren proiektuak ekar diezazkigukeen onurak baino kalteak ugariagoak direla esan beharrean aurkitzen gara. AVE izenez ezagunago den tren honek hiri haundienei egingo die soilik mesede, eta gainerakoentzat isolamendurako mehatxua baino ez da. Alde batetik autobia egiten badigute eta bestetik Abiadura Handiko tren hau, ez al gara hesituta geratuko?. Gertatzen ari denaz jabetu behar dugu eta guri zuzenean afektatzen digun neurrian, gai honen berri ematen jarraituko dugu datozen hilabeteetan ere.

Irakurleak, gai hauei buruz duzuen eritzia Ze Barri?n ematera gonbidatzen zaituztegu. Abiadura Handiko Trenaren berri guztiok izan behar dugu, osterantzean, berandu izango da eta gu konturatzeke tren pasako zaigu ziztu bizian, eta orduan alferrik izango da hura gelditzen saiatzea.

**Cuenta Joven de Caja Laboral El servicio más completo.**

**Euskadiko Kutxaren Kontu Gaztea. Zerbitzuetan osatuena.**

  
**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**

  
**LENIZ ESKORIATZA**

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
Tfnoa.: 943 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

**REPARACIONES LENIZ, C.B.**



**IRITZIAK****TXOZNAK 98**

Hilaren 27an, larunbata, ekin zitzaion jaiei etxafletoak bota eta herri poteoa eginez. Jaiei hasiera emateko txoznetako lagunok gorbata eta guzti dotore jantzi ginen gainera okasiorako.

Domekan tanborradan parte hartu genuen. Aurten beste taldeekin batera integratu gaituzte aforian, eta tanborrak ere eman dizkigute. Elkarteen antolaketa oso ona izan da, eta afaria berriz, bikaina. Tanborrada ostean gure batailoia txoznetara joan zen, bertan tanborra jo genuen eta argazki batzuk ere atera genituen, momentu hau inprobisatua izan arren oso hunkigarria izan zen.

Jai egunak pasatuz joan ziren, ez ordea hauetaz disfrutatzen gogozkan gogoak, horrela asteartean gaupasa egin genuen. Baina norbaitek alkateari deitu zion txoznetako zarata zela eta kexaka, eta horregatik azken egunean txoznetako arduradunari udaletxera deitu zitzaion. Eztabaida baten ondoren, herriko plazan taldeak jotzen zuen bitartean txoznak zabalik egoteko baimena eman ziguten, baina musika baju jarrita.

Gauean musika baju jarri genuen hasieran, baina ezinezkoa egin zitzaigun asmo hori betetzea, plazako taldea zela eta txoznetako musika ez baitzen entzuten, eta gainera guk gazteok ere martxarako gogoa baikeneukan. Beraz, musika igo genuen, eta gaueko unerik desagradableena orduan gertatu zen. Goizeko ordubetan alkatea etorri zitzaigun, musika kendu eta txoznak itxeko aginduz. Eztabaida gogorra izan zen txoznetan, alkatea, txoznen arduraduna eta bertan zegoen gainontzeko jendearen artean. Alkateak "disco rayado" bat ematen zuen. Beti gauza bera esan eta gainontzekoei ez entzun egitea ere! Hamar minutu garrasika igaro ondoren aldegina zuen, han berak agintzen zuena egin behar zela eta Ertzainei deituko ziela esanez. Demokrata guztiek horrela eztabaidatzen baldin badute, nahiko gaizki gabiltza bada Eskoriatzan.

Han egon ginen, musikarik gabe Ertzaina noiz etorriko zain, baina noski ez zen etorri eta azkenean, txoznak itxi genituen. Hala ere guk tabernetara joan eta jaiekin jarraitu genuen. Hauek bai, hauek zabalik baitzeuden eta musika topera zutela gainera.

ESKORIATZAKO TXOZNAK

**EZKONTZAK**

98-6-30 - Alexander Viquera Gorostiza + Itxaro Zabala Biana.

98-6-30 - Oscar Zabala Biana + Ana Isabel Gabilondo Aguirre

98-6-27 - Miguel angel Arevalo Luque + Isabel Ruiz Ramos

98-7-4 Jose Arrocha Fuentes + Eva Miguelez Martin

98-7-4 Jesus Clemente Prieto + Miren Edurne Atxotegi Iriarte

98-7-11 Asier Alegria Romarate zabala + Mari Jose Beitia Urrutia

98-7-25 Juan Carlos Alday Mendizabal + Miren Igone Armendariz Leceta

98-7-25 Luis M<sup>TM</sup> Urrutia Orobengoa + M<sup>TM</sup> Dorleta Arroyo Raso.98-7-4 Pedro M<sup>TM</sup> Olalde Isasmendi + Teresa Gomez Reyes.**JAIOTZAK**

98-7-24 Lander Raso Cano.

**Biblioporrak 98****0 urtetik aurrera:**

O'MARA, C.: Egunon, gabon.

**6 urtetik aurrera:**

MENDIGUREN, X.: Zergatik ez du kantatzen txantxangorriak?.

ROSS, T.: Sara.

**8 urtetik aurrera:**

CALLEJA, S.: Aitatxo balkoian dago.

GOMEZ UGARTE, A.: Ni eta nire kontuak.

IGARABIDE, J.K.: Bota ura! (nire terrazatik).

LANDA, M.: Ahatetxoa eta sahatxoa negartia.

**10 urtetik aurrera:**

BREZINA, T.: Ikasplanaren beldurra.

LLUCH, S.: Gilbortzio eta Argaltzio.

PAUSEWANG, G.: Sardina latak sirena.

ZUBIZARRETA, P.: Sekretuen liburua.

**Gazteak:**

COERR, E.: Sadako eta paperezko mila kurriloak.

ARIAS, J.: Arrats aldeko kronikak.

LANDA, M.: Katuak bakar bakarrik sentitzen direnean.

LERTXUNDI, A.: Tristekak kontsolatzeko makina.

RUIZ ZAFÓN, C.: Lanbro arteko printzea.

**HELDUAK:**

ITURRALDE, J.: Kilkirra eta roulottea.

JIMENEZ, E.: Baleen barbaroa.

KRISTOFF, A.: Koaderno handia.

OSORO, J.: Tentazioak.

SARRIONANDIA, J.: Hitzen ondoeza.

TORGA, M.: Piztiak.

ZUBIZARRETA, P.: Gizon izandako mutila.

**Industrias Olabarri, S.A.**Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxa: 34-43 - 714061**LENIZ**  
AUTO ESKOLA

tel. 943 71 41 86

*Gida baimen guztiak!***E. MAZMELA**  
HORTZ  
KLINIKA

Tel. 943 71 47 36





*Hilabete hauetan ezkontza asko izaten dira. Argazki hau ere 1960.urteko Ekainean aterata dago parrokiako elizpean, orduan ere ezkontzetara jendea dotore joaten zen.*

*Ezkerretik eskumara:Felix Arbe, Joakin Irin, Felix Diaz de Guereñu, Jazinto Azkarate, Juan Azkarate (ezkongaia), Paco Alonso eta Jesus Arroyabe.*

GOLO  
GAZTE  
MODA

Arana kalea, 13  
Tfnoa.: 71 42 99

Oporretan gogoratu Ze Barri?-  
rekin eta postala bidali. Postalik  
bitxienak saria izango du.

Helbidea: Ze barri?aldizkaria  
Hidalga 1, Kultur Etxea  
20540 Eskoriatza.

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Herriko plaza ☎ 943 79 81 78  
ARETXABAETA

VILLAR  
ileapaindegia

Tel. 943 71 50 42

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura